

ORAIN ARTEKO BEDERATZIAK

Basarritik Lujanbiora, zenbat txapel hainbat buru; aurten hamargarrena?

📁 KULTURA / Mainer Iantzi Goienetxe

Euskal Herriko bederatzi bertsolari txapeldun daude historian: Basarri, Txirrita, Uztapide, Xabier Amuriza, Sebastian Lizaso, Jon Lopategi, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Bihar agian hamargarrena izan daiteke. Bidaia bat proposatzen dizuegu, 1935ean hasi eta gaur egunera buelta, orain arteko bederatzi garai-leen txapelak jiratu eta barneko altxorretan arakatzuz.

1. BASARRI

Iñaki Eizmendi Manterola du gu lehendabiziko txapelduna. Errezilen jaio zen 1913an, baina Zarautzen bizi izan zen denbora gehiena, 1999an, 87 urte betetzear zituela, hil zen arte. 21 urterekin izan zen txapeldun, 1935ean. Lehenengo Bertsolari Gudu hartan, 20 bertsolari lehiatu ziren egun bakar batean, noiz eta San Sebastian egunean, Donostiako Poxpolin antzokian.

Bertsolari gудuek betiko lotu zuten Basarri Uztapiderekin. Gerran frontearen alde banatan ibili eta gero, bertsoak bildu zituen plazaz plaza.

Gerraosteko lehen Txapelketa Nagusiko txapela ere errezildarrak eraman zuen 1960an, Donostiako Victoria Eugenia antzokian, 48 urterekin. Orduan, herrialdeetako txapelketak jokatu ziren 56 bertsolariren artean, eta hamar iritsi ziren finalera.

1962an, Uztapideren gible-
tik bigarren egin zuenean, ez zen bat etorri emaitzarekin eta ez zuen gehiago parte hartu. Abenduaren 30ean jokatu zen final hartan, haxe izan zuten kartzelako gaia: «Biyar bukatuko dan urte oni bertso

Bertsogintzak berea du jolasa bezala jokoa eta badira antzinagoko bertso joko ospetsuak. Halere, 1935 eta 1936an egin ziren Bertsolari Guduak hartzen dira lehendabiziko txapelketatzat. Basarri izan zen aurreneko txapelduna eta harengandik Maialen Lujanbiorengana mundu bat ez, bederatzi mundu daude. Txapelen barnean begiratu eta deskubritu ditzagun.



bat bota bear diozu». Hona Basarriren lana: «Anai-arrebok, pasatu zaigu, pasatu zaigu urte bete/ zartutzen ari gera guztiok, orrekin daukagu kalte/ gaztetasun nun ziñan? gu're or izan giñan, ia orain zaude aparte/ ain urte txarra etzera izan ta ondo ezkutatu zaite».

Basarri da bertsoa sagardotegi eta taberna girotik jaso izanaren eragile nagusia. Bertsolaritzari buruzko ikuspegi bere-berea zuen, etorri handia, eta hagitz miretsia zen.

2. TXIRRITA

Bertsolaritzaren izarrik handienetakoa da Jose Manuel Lujanbio Retegi "Txirrita". Ereñotzun jaio zen 1860an eta Alzako Gazteluene baserrian eman zituen azken urteak. Hil zen urte berean, 1936an, izan zen txapeldun, 76 urterekin.

Ilbeltzaren 19an egin zen Bigarren Bertsolari Gudu, Donostiako Victoria Eugenia. 30 bertsolarik kantatu zuten bi sailkapen saiotan, eta hamar ailegatu ziren finalera.

Txirrita beti zegoen prest kantatzeko. Eskolagabea izan arren, leitzen bazekien eta herritar aunitzen buruan arrotz ziren erreferentziak zituen, erromatarren historiakoak eta foruen galerakoak adibidez. Bat-bateko bertsolari bezala baino ezagunagoa zen bertso-jartzaile gisa. 10 duro kobratzen zituen sortako.

3. UZTAPIDE

1962ko txapelduna izan zen Uztapide. 84 partaide izan zituen txapelketa hark eta hamarrek kantatu zuten Donostiako Astoria antzokiko final handian. «Ama» izan zuten kartzelako gai. Hona haren lehen bertsoa: «Auxen da gai polita orain neregana/ alboko

lagunendik etorri zaidana/
bertsoak bota bear emen iru
bana/ ortan esango nuke nik
naitasun dana/ beste ze esanik
ez ta esanikan: ama».

Manuel Olaizola Urbietako Endoia auzoan sortu zen 1909an. 1952an Oiartzunera ezkondu eta Ergoienetik zuzendutako zen 1983an.

Bertsolaririk maitatuenetakoa da. Hiru belaunalditara egokitzen asmatu eta guztien errespetua eta ezagutza eskuratu zituen. Behatzaile zorrotza zen, hizkera eta arrazoiketa garbikoa. Etorri handia zuen, eta ahots sakona.

1965 eta 1967an ere irabazle izan zen.

4. XABIER AMURIZA

Bertsolaritza modernoaren figura nabarmena dugu Xabier Amuriza Sarrionandia, aunitzen eredia. 1941ean Etxanon jaioa, 6 urtetxorekin jada jendaurrean kantari aritzen zen.

1980an, Donostiako Balda pilotalekuan egin zen finala, Errege egunez, zortzi bertsolarirekin. Amurizak lehen txapela jantzi zuen, 39 urterekin, eta berarekin bertsolaritza garai berri batean sartu zen.

Bere hizkera eta irudien mundu bereziak ekarri zituen, doinu ugari asmatzearekin batera. Bederatzi puntukoan, Euskal Herriari kantatu zion:

Ekzer-eskuin, Uztapide, 1967an; Xabier Amuriza, 1980an; Sebastian Lizaso, 1986an; Jon Lopategi Andoni Egañari txapela jantzen, 1993an; Maialen Lujanbio, 2009an; eta Amets Arzallus, 2013an.
SENDOA ARTXIBOA - Aitor GONZALEZ - Luis JAUREGIALTZO / FOKU

«Erreka-bazterrean ernetzen
da altza/ ark bezela guk ere
orriak altza/ Euskalerrri gurea
da gure maatsa/ naiz-ta aska-
tasunez eztan aberatsa/ au
destino latza/ askotan garra-
tza/ gakoa or datza/ aldatzeko
martxa/ bera muga lotuak go-
ra esperantza».

1982an ere bera izan zen garaile. Hamarkada horretan, bertso eskolen eragile nagusia izan zen. Trilogia iraultzaile bat idatzi zuen: “Hitzaren ki-

rol nazionala”, “Hiztegi erri-
matua” eta “Zu ere bertsolari”.
Berezkoaren mitoa hautsiz,
bertsoa eskuragarri egin zuen.

2016an utzi zion bertsolari jarduerari, baina inondik ere ez sortzeari. 2019an, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekua-na Saria irabazi zuen.

5. SEBASTIAN LIZASO

1986ko martxoaren 23an, Sebastian Lizaso Iraolaren bu-
ruan jarri zuen txapela Ma-

nuel Lekuonak. Txapelketak 40 partaide izan zituen. Apustu handia izan zen Belodromoan egitea. Puntuazioa bistan ematen zen lehen aldia (eta azkena) ere izan zen. Horregatik, txapela beretzat zela aurkezleak baino lehen errantzion 28 urteko azpeitiarrari publikoak. «Poza eta sustoa» hartu zituen. Amuriza eta Lopategi ziren faborito.

Sebastianek bizkortasuna
eta ahots indartsua ditu be-



reizgarri. Joxe Lizasoren semea eta Beñat Lizasoren aita da, esnearekin bezala bertsoekin hazia. Urtean 200 plaza egitera iritsia da, sarri Andoni Egañarekin bikotean.

Bertsoekin adineko jendearen gaitasuna sustatzeko Adin Adin proiektua ere sortu zuen.

6. JON LOPATEGI

Jon Lopategi Lauzirikari Basarrik jantzi zion txapela 1989an. 40 bertsolaritatik zortzi heldu ziren Belodromora. Kartzelan, honakoa zuten gaia: «Bizitza guztia itsasoan eman duzu: gaur egun ohetik mugitu ezinez zaude. Leihotik sartzen zaizu itsasoaren olatu hotsa». Hona Beltzaren bigarren bertsoa: «Lehenago beti arrantzatzan gogoz egun ta gau/ hortan zaindu nituen zenbait euskal arau/ eta zaletasunak oraindik badirau/ baina erreallitatez gizaxo honek barau/ orain aditutzean olatuen hots hau (bis)/ burutik oinetara dardaran jartzen nau».

Lopategi Muxikan jaio zen 1934an eta bertan hil zen 2019an. Filosofia ikasi zuen, eta 50 urteak beteta, Irakasleztan lizentziatu zen. 90eko urteetan puntara iritsi ziren bertsolari bizkaitar gehienak bere eskutik heldu ziren.

Gerra ondotik, bera izan zen lehen bertsolari eskolatua.



Diktaduraren amaieran eta ilusio aro berri baten hastapenetan, bikote ospetsua osatu zuen Azpillagarekin, eta bertsolaritzari mezu sozial eta politikoa emateko ausardia eta argitasuna izan zuten. Ondo

1935 eta 1936ko bertsolari gudu haiek betiko lotu zuten Basarri Uztapiderekin. Gerran frontearen alde banatan ibili eta gero, bertsoak bildu zituen berriro plazaz plaza

Lau garaikurren jabe, txapeldunen txapelduna da Andoni Egaña. Belodromoa mukuru, Lopategik jantzi zion lehena 1993an. Lau edizio irabazi zituen jarraian, azkena 2005ean

rioz, behin baino gehiagotan hartu zuten preso.

7. ANDONI EGAÑA

Lau garaikurren jabe, txapeldunen txapelduna da Andoni Egaña Makazaga, 1961ean sortutako zarauztarra. Belodromoa mukuru, Lopategik jantzi zion lehena 1993an. Lau edizio irabazi zituen jarraian, azkena 2005ean.

Amurizaren eraginetik abiatuta, bertsolaritzari maila gorena eman dio. Erabat sorkuntzari emana, plazaz plaza erritmo harrigarrian ibiltzeaz gain, bertsolaritza eta ahozko-tasunari buruzko ekarpen interesgarriak egin ditu.



1986an txapelketetan hasi zenetik 2009an agurtu zen arte, finalista izan zen beti. “Bertsolari” aldizkariak bere izena eman dio 90eko hamarkadako aparraldian bertsolaritza irauli eta bizimodu egin zuen belau-naldiari. Belaunaldi horretako kideek Egañaren sufritzeko gaitasuna ez sinestekoa dela nabarmendu izan dute.

1993an, lehen txapela bu-ruan, hala kantatu zuen 32 urteko zarauztarrak agurra: «Zuek horrela ikusi eta neroni jartzen naiz alai;/ batasun honek beharko luke euskaldun-goaren dohai./ Ni lehengoa naiz buru gaineko uztai edota, ez uztai./ Inor ez zegoen lasai,



**HERRIKO
TABERNA**

Karmen kalea 34. IRUÑEA · t 948 22 28 28 · www.herriko.eus



urduritasuna etsai,/ denak irristadaren zai./ Goizean goizik Lazkao Txiki aipatu dute, nolanahi.../ Zuen txaloak bereztat dira, nere txapela ere bai (bis)».

8. MAIALEN LUJANBIO

2009ko eta 2017ko txapeldunak, Maialen Lujanbio Zugastik, bertso franko utzi dizkigu iltzatuta. 33 urte zituela, 14.500 lagunek irakiten jarritako BECen, Joxe Agirrek lehen txapela jantzi zionean bota zuen agurra adibidez: «Gogoratzzen naiz lehengo amonen zapi gaineko gobaraz/ gogoratzzen naiz lehengo amonaz gaurko amaz ta alabaz/ Joxei

ta zuei mila zorion miresmenaren zirrarez/ ta amaituko dut txapel zati bat zuek guztiontzat lagaz/ gure bidea ez da erreza bete legez juizioz trabaz/ Euskal Herriko lau ertzetara itzuliko gara gabaz/ eta hemen bildu dan indarraz, grinaz eta poz taupadaz/ herri hau sortzen segi dezagun euskaratik ta euskaraz».

1976an jaiotako hernaniarra, gaurko txapelduna, letren bueltan bizi da. 15 urterekin ekin zien plazei eta 30 urteko ibilbidean ikaragarri garatu da. Txapela eskuratu aitzin plazetako txapeldun jotzen zuen aunitzek. Bertso bakoitzari autore sinadura zigila-

tzea maite du. 2017ko txapelketan hori lortu zuen, adibidez Irungo bertso gogoangarri haietan: «Gizona eta andrea nauzu, ez andrea ez gizona/ nire inon ez egon nahia ote da zure ezinegona».

1997tik beti izan da finalista eta beti emakume bakarra. Hori ere aldatu da azkenean.

9. AMETS ARZALLUS

2013an, 30 urte zituela, Amets Arzallus Antiak jantzi zuen txapela Joanito Dorronsororen eskutik, Barakaldon. Presente izan du beti lorpen pertsonala baino gehiago, denen bideko zerbait dela txapela, eta hala sentitu zuen.

1983an Hendaian sortua, Jexux Arzallusen semea da eta etxean bertso giroa izan du txikitatik, Maddalen arrebak bezala. Nagusiki bertsolaritzan aritzen da, tarteka idazten ere bai. Ibrahima Balderekin idatzitako «Miñan» liburua mugarri izan da bere bizitzan.

2009an txapeldunorde izan zen eta 2005etik final guztietan aritu da. Memoria duenetik jarraitu du txapelketa, etxekoentzat bizitzeko «modu polit bat» da, GAUR8ri agertu izan dionez. Futbolean ere ibilia, erakargarria zaio eta «ganbara garbitzen» laguntzen dio, gero plazan zer pentsatua sortzen duten aleak uzteko.



**ELKARREKIN,
ELKARTZEKO,
ELKARTASUNEZ**

Parra taberna

Herriko Plaza, 2. ELORRIO
t 94 682 13 81

